Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko uztailaren 17a, astelehena — 138 — Lunes, a 17 de julio de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 11n honako erabaki hauek hartu zituen:

«Tokiko Gobernu Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 26an, Donostiako Udaleko Administrarien hirurogeita hiru (63) plaza txanda librean eta lehiaketa-oposizio bidez behin betiko betetzeko deialdia onartu zuen (58 plaza modalitate orokorrean eta 5 plaza desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoan). Plaza horiek betetzeko hautaketa-prozesua abian da gaur egun.

Deialdian hasieran deitutako plazak enplegu publikoaren eskaintza hauetakoak dira:

— 2017ko urriaren 17an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako 2017. urteko Lan Eskaintza Publikoa (2017/10/31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 208. zk.): Administrarien hogeita bi (22) plaza txanda librean betetzeko (20 plaza modalitate orokorrean eta 2 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

— 2018ko azaroaren 27an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako 2018. urteko Lan Eskaintza Publikoa (2019/01/16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 11. zk.): Administrarien hogei (20) plaza txanda librean betetzeko (19 plaza modalitate orokorrean eta plaza 1 desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2019ko martxoaren 12ko akordioaren bidez, 2018ko Lan Eskaintza Publikoa aldatu zuen (2019/04/02ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 63. zk.). Hala ere, aldaketa horrek ez zuen eraginik izan Administrari plazetan.

— 2020ko urriaren 28an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako 2020. urteko Lan Eskaintza Publikoa (2020/11/12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 217. zk.): Administrarien hogeita bat (21) plaza txanda librean betetzeko (19 plaza modalitate orokorrean eta 2 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

Ondoren, 2022ko ekainaren 22an, Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen, halaber, Donostiako Udaleko hirurogeita hiru (63) administrari-plaza txanda ireki bidez behin betiko betetzeko deialdian plazen handitzea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2022/07/06, 128 zk.).

Beraz, hasiera batean deitutako plazei 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkionak handitu zitzaizkien.

— 2021eko abenduaren 14an, Tokiko Gobernu-Batzordeak, onartutako 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintza (2021/12/28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 247. zk.). Bertan, txanda irekiko 41 plaza zeuden, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak ezarritako birjarpen-tasa zorrotza aplikatuz.

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 11 de julio de 2023, adoptó los siguientes acuerdos:

«La Junta de Gobierno Local, con fecha 26 de enero de 2021, aprobó la convocatoria para la provisión definitiva por turno libre mediante concurso-oposición de sesenta y tres (63) plazas de administrativo/a del Ayuntamiento de San Sebastián (58 plazas por la modalidad de acceso general y 5 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad). El proceso selectivo para la provisión de las plazas en cuestión se encuentra actualmente en curso.

Las plazas que se encontraban inicialmente convocadas se corresponden con las siguientes ofertas de empleo público:

— Oferta de Empleo Público del año 2017 aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 17 de octubre de 2017 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 31/10/2017, n.º 208): veintidós (22) plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (20 plazas por la modalidad de acceso general y 2 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

— Oferta de Empleo Público del año 2018, aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 27 de noviembre de 2018 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 16/01/2019, n.º 11): veinte (20) plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (19 plazas por la modalidad de acceso general y 1 plaza por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

La Oferta de Empleo Público de 2018 fue modificada por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 12 de marzo de 2019 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 02/04/2019, n.º 63); sin embargo, dicha modificación no afectó a las plazas de administrativo/a.

— Oferta de Empleo Público del año 2020, aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 28 de octubre de 2020 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 12/11/2020, núm. 217): veintiún (21) plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (19 plazas por la modalidad de acceso general y 2 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

Posteriormente, a fecha de 22 de junio de 2022, la Junta de Gobierno Local aprobó, también, la ampliación de plazas en la convocatoria para la provisión definitiva por turno libre mediante concurso-oposición de sesenta y tres (63) plazas de administrativo/a del Ayuntamiento de San Sebastián (Boletín Oficial de Gipuzkoa 06/07/2022, núm. 128).

Con lo cual, a las plazas que se encontraban inicialmente convocadas se les amplió las correspondientes con la Oferta de Empleo Público del año 2021.

— Oferta de Empleo Público del año 2021, aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 14 de diciembre de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 28/12/2021, n.º 247), que incluía 41 plazas por turno libre en aplicación de la tasa de reposición estricta establecida por la Ley 11/2020, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2021.

EK\CV GAO-I-2023-05310

41 plaza horien artean 34 Administrari plaza zeuden txanda librean betetzeko (32 plaza modalitate orokorrean eta 2 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

2017., 2018., 2020. eta 2021. urteetako Lan Eskaintza Publikoetan sartutako Administrari plazen deialdi bateratua ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiengatik egin zen; eta, onartu zenetik, adierazi zen plazen guztizko kopurua (63, eta, gaur egun, 97) handitu egin zitekeela azken kalifikazioak argitaratu aurretik izandako lanpostu hutsen kopuruarekin.

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 16an (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020/06/24, 118. zk.), onartu zituen oinarri orokorren 8.2 oinarriak honako hau arautzen du: «Deialdiko plaza kopurua handitu egin daiteke hautaketa prozesuan edozein arrazoi dela eta hutsik gera daitezkeen tokien arabera, baldin eta hala xedatzen bada deialdiko oinarri berezietan. Lanpostu handitze hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Bertan, hizkuntza-eskakizuna betetzeko nahitaezko data esleituta duten lanpostuen kopurua jasoko da, eta, edonola ere, azken kalifikazioak argitaratu aurretik adostu eta argitaratu beharko da».

Oinarri orokorren arabera, plaza-kopurua handitzeko aukera deialdiaren oinarri espezifikoek ezartzen dute.Ildo horretan, administrarien 63 plazak betetzeko abian den deialdiaren oinarri berezien (2021/02/10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 26. zk.) lehenengo oinarrian honako hau xedatzen da: «Deialdiko plaza kopurua handitu ahalko da azken kalifikazioak argitaratu baino lehen sortzen diren plaza hutsekin. Hala gertatuz gero, ez da beharrezkoa izango eskaerak aurkezteko beste epe bat irekitzea».

Arau horretatik ondorioztatzen da bidezkoa dela plazen guztizko kopurua (97) handitzea sortutako plaza hutsen kopuruarekin. Baldin eta azken kalifikazioak argitaratu aurretik egiten badira.

Bada, prozeduraren izapidetze-egoerari dagokionez, hautaketa-prozesua lehiaketa-fasean dago, lehiaketa-faseko behinbehineko emaitzen aurka egindako erreklamazioei erantzuteko epealdian. Deialdian 5.000 hautagai baino gehiago inskribatu ziren; horietatik 2.568k lehenengo ariketa egin zuten eta 959k oposizio-faseko kanporatze-ariketa guztiak gainditu dituzte. Beraz, agerikoa da martxan dagoen prozesua baliatu behar dela enplegu publikoaren eskaintzan onartutako administrari plaza huts guztiak betetzeko, ahalegin ekonomiko eta kudeaketa handia eskatzen baitu horrelako deialdi batek Udalarentzat.

Era berean, 2023ko ekainaren 6an, Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen, 106 plaza barne hartzen zituena, txanda irekiko 101 plaza eta barne sustapeneko 5, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak ezarritako birjarpen-tasa zorrotza aplikatuz.

101 plaza horien artean, administrari 8 plaza zeuden, txanda aske bidez betetzeko (7 plaza sarbide orokorreko modalitateagatik eta 1 plaza desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoagatik). 8 Plaza horiek eta dagoeneko deitu diren 97 plazak, C1 sailkapen-azpitaldekoak dira, administrazio orokorreko eskalakoak, eta guztiek dute 2. hizkuntza-eskakizunaren (B2), derrigortasun-data igarota.

Kontuan hartuta, azaldu den bezala, deialdia arautzen duten oinarriek plaza-kopurua handitzeko aukera ematen dutela eta hautaketa prozesuak ez dituela azken kalifikazioak argitaratu, arrazoizkoa da deialdia zabaltzea, eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia printzipioekin bat etorrita.

Entre esas 41 plazas se encontraban 34 plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (32 plazas por la modalidad de acceso general y 2 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

La convocatoria conjunta de las plazas de administrativo/a incluidas en las Ofertas de Empleo Público de los años 2017, 2018, 2020 y 2021 respondía a razones de economía, eficacia y eficiencia; y ya desde su aprobación se señalaba que el número total de plazas (63 y, actualmente, 97) podría incrementarse con el de las vacantes producidas con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales.

Las bases generales, que fueron aprobadas por la Junta de Gobierno Local, con fecha 16 de enero de 2020 (Boletín Oficial de Gipuzkoa 24/06/2020, núm. 118), establecen en su base 8.2 que el número de plazas convocadas podrá ser ampliado en función de las vacantes que se produzcan por cualquier causa durante el desarrollo del proceso selectivo si así lo establecen las bases específicas de la convocatoria. Dicha ampliación se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web, haciendo constar el número de plazas que tengan asignada fecha de preceptividad en el cumplimiento del perfil lingüístico y, en todo caso, deberá ser acordada y publicada con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales.

Las bases generales condicionan la posibilidad de ampliar el número de plazas a que lo establezcan las bases específicas de la convocatoria. En este sentido, las bases específicas de la convocatoria (Boletín Oficial de Gipuzkoa 10/02/2021, núm. 26) que se encuentra en curso para cubrir las 63 plazas de administrativo/a establecen en su base primera que el número de plazas convocadas podrá incrementarse con el de las vacantes que se produzcan con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales. En tal caso no será preceptiva la apertura de un nuevo plazo de presentación de solicitudes.

De dichos preceptos se concluye que procede incrementar el número total de plazas (97) con el de las vacantes producidas. Siempre y cuando estas se produzcan con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales.

Pues bien, conforme a lo que respecta del estado de la tramitación del procedimiento, el proceso selectivo se encuentra en la fase de concurso pendiente de responder las reclamaciones efectuadas contra los resultados provisionales de la fase de concurso. En la convocatoria se inscribieron más de 5.000 aspirantes, de los que 2.568 realizaron el primer ejercicio y 959 han superado todos los ejercicios eliminatorios de la fase de oposición. Resulta, por lo tanto, evidente la necesidad de aprovechar el proceso en marcha para cubrir todas las vacantes de administrativo/a aprobadas en oferta de empleo público, dado el importante esfuerzo económico y de gestión que supone una convocatoria de estas características para el Ayuntamiento.

Asimismo, a fecha de 6 de junio de 2023, La Junta de Gobierno Local aprobó la Oferta de Empleo Público del año 2023, que incluía 106 plazas de ellas 101 plazas de turno libre y 5 de promoción interna en aplicación de la tasa de reposición estricta establecida por la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023.

Entre esas 101 plazas se encontraban 8 plazas de administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (7 plazas por la modalidad de acceso general y 1 plaza por el cupo de reserva para personas con discapacidad). Estas 8 plazas, al igual que las 97 ya convocadas, pertenecen al subgrupo de clasificación C1, escala administración general, y todas ellas tienen asignado el perfil lingüístico 2 (B2) con fecha de preceptividad vencida.

Teniendo en cuenta, como se ha expuesto, que las bases que rigen la convocatoria establecen la posibilidad de ampliar el número de plazas y, que el proceso selectivo no ha llegado a la publicación de las calificaciones finales; resulta razonable ampliar la convocatoria por ser la opción más acorde con los principios de eficacia, eficiencia y economía.

EK\CV GAO-I-2023-05310

Horregatik guztiarengatik, Tokiko Gobernu Batzordea honako akordio hauek hartzea proposatzen diogu:

AKORDIOAK

*Lehenengoa.* 2021eko urtarrilaren 26an, Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako administrari plazen deialdia handitzea, 2023. urteko Lan Eskaintza Publikoan sartutako 8 administrari plazekin; guztira 105 izango dira txanda librean beteko diren administrari plazak (97 plaza modalitate orokorrean eta 8 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan). 105 plazei 2. hizkuntza-eskakizuna (B2) esleitu zaie, derrigortasun-data igarota.

*Bigarrena.* Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren oholean eta Udalaren webgunean argitaratzea».

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko uztailaren 12a.—M.ª Isabel Íñiguez Azurmendi, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (5310)

Por cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes acuerdos:

ACUERDOS

*Primero.* Ampliar la convocatoria de plazas de administrativo/a aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 26 de enero de 2021, con las 8 plazas de administrativo/a incluidas en la Oferta de Empleo Público del año 2023; siendo en total 105 las plazas de administrativo/a a cubrir por turno libre (97 plazas por la modalidad de acceso general y 8 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad). Las 105 plazas tienen asignado el perfil lingüístico 2 (B2) con fecha de preceptividad vencida.

*Segundo.* Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncio del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento».

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 12 de julio de 2023.—La directora de Gestión de Personas, M.ª Isabel Íñiguez Azurmendi. (5310)



EK\CV GAO-I-2023-05310